FITXA: 285 – Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egiten da.

Nori zuzendua: Dirulaguntzen erakunde onuradun izan ahalko dira honako toki-erakunde hauek: a) Toki-erakundeak, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2.1 artikuluak xedatutako baldintzetan: udalerriak, kontzejuak eta lurraldeko beste edozein toki-erakunde baldin eta udalerria baino txikiagoa bada, udalerrietako mankomunitateak, Arabako lurralde historikoko kuadrillak eta eskualdeak. b) Berezko nortasun juridikoa duten erakundeak toki-sektore publikoaren barruan. – Zuzenbide publikokoak: toki-erakunde autonomoak, tokiko enpresa-entitate publikoak, partzuergoak. – Zuzenbide pribatukoak: tokiko merkataritza-sozietateak, toki-fundazio publikoak.	
Deialdia: EHAA - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria	**Deialdiaren data:** 2026/10/29
Sarbide-esteka: a) Klima-aldaketaren lerroan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1009412 b) Natura-ondarearen lerroan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1009513 c) 2026ko Asteklimaren lerroan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1215904	
Erreferentziazko araudia: AGINDUA, 2026ko urriaren 21ekoa. - https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/10/2604560e.pdf	
Eragin eremuak: Ingurumena	
Zenbatekoa: 4.000.000,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/10/30	**Aurkezteko azken eguna:** 2026/11/30
Aurrerakina: Ez da zehaztu	**Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Jarduera-ildo bakoitzerako definituak.	**Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.
Tramitazioa: Norgehiagoka.	

Laburpena

Agindu honen helburua da dirulaguntzen oinarriak eta deialdia zehaztea Euskal Autonomia Erkidegoko udal, mankomunitate, kontzeju eta udalerria baino txikiagoa den lurraldeko edozein

toki-erakunde, kuadrilla, eskualde, toki-erakunde autonomo, tokiko merkataritza-sozietate, tokiko merkataritza-entitate publiko, toki-partzuergo eta toki-fundazio publikoetarako, baldin eta ekintzak egiten badituzte garapen jasangarria sustatzeko honako ildo hauekin bat etorriz:

a) Klima-aldaketa: CO_2 xurgatzeko eta egokitzeko ekintzak lurraldearen erresilientzia bultzatzeko eta klima-aldaketaren ondorioak murrizteko Euskal Autonomia Erkidegoan.

b) Natura-ondarea: Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzen, lehengoratzen edo hobetzen laguntzeko ekintzak.

c) Asteklima 2026: klima-aldaketaren arloan herritarrei ekintzara mugiarazteko jarduerak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

a) Klima-aldaketa: CO_2 xurgatzeko eta egokitzeko ekintzak lurraldearen erresilientzia bultzatzeko eta klima-aldaketaren ondoreak murrizteko Euskal Autonomia Erkidegoan.

b) Natura-ondarea: Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzen, lehengoratzen edo hobetzen laguntzeko ekintzak.

c) Asteklima 2026: klima-aldaketaren arloan herritarrei ekintzara mugiarazteko jarduerak.

Jarduera-ildoak

a) Klima-aldaketa: CO2 xurgatzeko eta egokitzeko ekintzak lurraldearen erresilientzia bultzatzeko eta klima-aldaketaren ondoreak murrizteko Euskal Autonomia Erkidegoan.

4. oinarriko xehetasuna.

b) Natura-ondarea: Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzen, lehengoratzen edo hobetzen laguntzeko ekintzak.

5. oinarriko xehetasuna.

c) Asteklima 2026: klima-aldaketaren arloan herritarrei ekintzara mugiarazteko jarduerak.

6. oinarriko xehetasuna.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira, Dirulaguntzen Erregulazioa abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluak xedatutakoaren arabera, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak.

Gastuetarako aldi hautagarria

2026. urtean gauzatzen hasi diren jarduketak baino ez dira diruz lagunduko. Erakunde onuradunek 2028ko urriaren 31 baino lehen egikaritu eta justifikatu beharko dute diruz lagundutako ekintza, honako kasu honetan izan ezik:

a) Asteklima 2026 ildoan dirulaguntza jasotzen duten proiektuak halabeharrez 2026ko Euskadiko Klima eta Energiaren Astea egiten den datetan gauzatuko dira, hau da, 2026. urteko bigarren seihilekoan, eta jarduketaren justifikazio-dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztuko da deialdiaren ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.